

Merkataritza elektronikoa %12,7 hazi zen salmentetan eta %11,6 erosketetan 2006an euskal enpresetan

Merkataritza elektronikoa egiten duten Euskal AEko enpresak %12,8 dira, azken urtean %%22an hazi ondoren

Euskal AEko merkataritza elektronikoa eutsi egiten dio hazteari, bai zifra ekonomikoetan, bai egiten duten enpresa kopuruan, Eustaten datuen arabera. 2006an sarearen edo bestelako sistema elektronikoen (e-maila, EDI, datu-truke elektronikoa, etab.) bidez sortutako negozio-bolumena 5.645,3 milioi eurora iritsi zen salmentetan, eta 2.647,8ra erosketetan.

Zifra horien arabera, 2005. urtearen aldean %12,7 gehitu ziren merkataritza elektronikoen bidez egindako salmentak; erosketak, berriz, %11,6 gehitu ziren.

1. taula: Merkataritza elektronikoa bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen, jardura-adarraren eta enplegu-geruzaren arabera.

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2005	2006	%	2005	2006	%
C.A. de Euskadi	2.371,7	2.647,8	11,6	5.008,1	5.645,3	12,7
Lurralde historikoa						
Araba	476,3	551,5	15,8	2.367,1	2.718,1	14,8
Bizkaia	1.342,7	1.489,1	10,9	1.612,2	1.771,3	9,9
Gipuzkoa	552,7	607,2	9,9	1.028,8	1.155,9	12,4
Sektoreka						
Industria	1.249,2	1.361,1	9,0	3.289,6	3.784,6	15,0
Eraikuntza	2,9	4,3	-	2,4	14,8	-
Zerbitzuak	1.119,6	1.282,4	14,5	1.716,1	1.845,9	7,6
Enplegu-geruzak						
Oti 9rakoak	705,0	769,5	9,1	656,1	678,4	3,4
10 eta gehiagokoak	1.666,7	1.878,3	12,7	4.352,0	4.966,9	14,1

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: Eustat.

Balio absolutuetan, eta aurreko urteetan bezala, herrialdeka Bizkaia erosketetan eta Araba salmentetan nabarmentzen dira; jardura adarren arabera Industria gailentzen zaigu, bai erosten, bai saltzen, beste sektoreen aldean Establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 enplegatu edo gehiagokoek lortu zituzten emaitza nagusiak merkataritza elektronikoen erabileran.

Merkataritza elektronikoa egiten duten enpresa kopurua %22an hazi da 2006an, %12,8an jarri delarik. Portzentaje hau, batez ere, erosketak egiten dituzten enpresek osatzen dute, %11,4; neurri txikiagoan salmenta egileek, %2,9. Halere, euskal enpresen parte hartze gero eta handiago honekin kontrastean daude merkataritza elektronikoen bidez mugitzen diren zifra ekonomikoak, askoz ere handiagoak salmentetan.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimendua guztira						10 langile edo gehiago					
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7

(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: Eustat.


Egindako kalkuluen arabera, 23.300 bat dira Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak. Establezimendu horiek bide horretatik egiten dituzten erosketak guztizko erosketen %18,2 hartzen dute eta salmentek, guztizko salmenten %24,4.

Zifra hauek aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartuz gero. 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen artean, %20,4k egiten dute merkat. elektr. Segmentu honetan ere, erosketak egiten dituztenak askoz gehiago dira, %17,7; izan ere, salmenta egileak %6,4 dira.


Salmenta elektroniko horiek egiteko erabili den bitartekoari dagokionez, %43,2 bakoitzaren web orritik, %35,1 posta elektroniko (e-mail) bidez eta gainerako %21,7 EDI eta beste sare batzuen bidez egin dira. Salmentak horrela egin dira: %56,3 EDI eta beste sare batzuen bidez, %27,3 web orriaren bidez eta %16,4 e-mailez.

1.grafikoa: 2006ko salmenta elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)

Erosketak




Salmentak



Iturria: Eustat.

2006an merkataritza elektroniko bidez egindako salmenten bezero-motari dagokionez, salmenta guztien %86,2 beste enpresa batzuetara saldu zen (B2B deritzon merkataritza), %12,8 kontsumitzaile partikularrei saldu zitzaien (B2C) eta gainerako %1ek bestelako helburuak izan zituen, esaterako, administrazio publikoak (B2G).

2.grafikoa: 2006ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)




Iturria: Eustat.

Bezeroen kokapenari erreparatuta, honela banatu ziren sarearen bidez egindako salmentak: fakturatutakoaren %43,8 Europar Batasunera joan zen, %33,6 Estatuko gainerakora, %20,5 Euskal AE barneko merkatuan gelditu zen, eta gainerako %2,1 munduko gainerako lekuetara joan zen.

Erosketen atalean, enpresek adierazi zuten jatorri nagusia Estatuko gainerakoa izan zela, han egin baitziren erosketak elektronikoak %52,5. Ondoren, %27,3 erkidegoan bertan erosi zen, %15,5 Europar Batasunean eta %4,7 munduko beste toki batzuetan.

3.grafikoa: 2006ko erosketa eta salmenta elektronikoak, helburu edo jatorri geografikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Juan Luis López

Tel.: Faxe:

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp